

noaia

San Juan jaiak, iruditan

**Aitor Aranguren,
debutean garaile**

**Abiatzear da
Laboaren Uztaila**



**“Ohore handi bat da.
Gaztaina gehiago
erretzeko gogoa ematen du”**

LIZARDI LIBURYDENDA



·IKASTURTE BERRIRAKO
LIBURUAK SALGAI
Oporretarako koadernoak, testu liburuak,
eskolako materiala...

Etxebeste kalea, 1
☎ 943 361 115

Ondo pasa jaietan!



BIDAIAK
TALDEAN

NOAOA BIDAIAK

943 37 36 13 noaoa.eus Hipodromo Etorbidea, 10 Lasarte-Oria



Lizarralde
ORTOPEDIA

Bizi kalitatea hobetuz

Ondo pasa Santxabeletan!

Astelehenetik ostiralera: 09:15-13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbata: 10:30-13:00

✚ Teknikari ortopeda kontsulta

👤 Arreta pertsonal eta espezializatua

☎ Online eta telefono bidezko aholkularitza

👤 Salmenta ondorengo zerbitzua

📦 Etxera banaketa

🪑 Eskailera igogailuen instalazioa

🛒 Komun eta etxebizitzaren egokitzapena

✅ Diru-laguntzen aholkularitza eta tramitazioan laguntza

🩺 Produktu ortopedikoen salmenta eta aholkularitza

👣 Zapata eta ortesi gama zabala

ALOKAIRUAN:
gurpildun
aulkiak,
ohe artikulatuak

Lizarralde Ortopedia
Kazkazuri plaza 1 - behea
20180 Oiartzun

Tel: 943 543 585 Mugikorra: 688 678 583
andoni@lizarraldeortopedia.eus
www.lizarraldeortopedia.eus

Albistea iruditan

Txokoaldeko Txalaparta Txokoan

Garai bateko tren geltoki izandako eraikina txalaparta txokoan bihurtua da iaztik, Usurbilgo Udalak bertan kultur proiektu berritzaileak garatzeko eginiko lehiaketaren haritik. Oreak Tx taldeak kudeatzen duen gunea bisitatzen izan zen ekainaren 17an ondoko herritar taldea, Mintzalagunek antolaturiko irteeraren baitan. Etumeta AEK euskaltegiak, NOAUA! K.E.-k eta Usurbilgo Udalak sustaturiko egitas-moko hainbat partaide eta herritar bildu zituen hitzorduak. Bisitaren baitan, txalaparta sakonago ezagutu eta jotzeko aukera izan zuten. "Asteburukoa primeran atera zen. Jende ugari, giro atsegina eta eguraldia ere lagun".



Argazkian, Mintzalaguneko kideak eta hainbat herritar. Argazkia: Etumeta AEK euskaltegia.

Laburrean

Ugaitz Agirrerren nobela aurkezpena

"Tximeletak bizkarrean" Susa argitale-txearekin plazaraturiko bere estreinako nobela aurkeztuko du Ugaitz Agirre usurbildarrak, asteazken honetan (ekainak 27) 19:00etan Sutegin.

Euskara eta aisialdiko udal diru-laguntzak

2017-18 ikasturtean, euskara ikasten aritu edota aisialdi begirale zein zuzendari ikastaroa egiten aritu direnek udal diru-laguntzak eskatzeko aukera dute uztaillaren 6ra arte udaletxeko erregistroan.

Hurrengo odol ematea, uztaillaren 9an

Jaien ondorengorako egin dute deialdia. Hurrengo odol ematea uztaillaren 9an astelehena izango da, arratsaldeko 18:00etatik 20:30era, ohiko tokian: Usurbilgo ambulategian.

noaUA

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaUA.eus ||| www.noaUA.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaUA.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaUA.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon

Galbete.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Garazi Lizaso Manterola

Astebetean

Astebetean hainbeste gauza gerta litezke. Eta gertatu, gertatzen dira. Zazpi egunek askorako eman dezakete eta aurreko asteari erreparatu besterik ez dago: Nafarroako Auzitegiak aske utzi zituen 2016ko San Ferminetako talde-bortxaketako bost kideak, Asparrenan (Araban) emakume erail baten gorpua agertu zen, Biarritzen 20 urteko gizon bat atxilotu zuten bortxatzeagatik eta Algortan manifestazioa egin zuten haurren kontrako sexu indarkeriaren aurrean inpunitateari ezetz esateko.

Kasu isolatuak izan litezke, baina ez dira. Horiek titularretara iritsi dira; zenbat dira, aldiz, argirik ikusten ez dutenak?

Aipatu ditudan kasu batzuk aski ezagunak zaizkigu. Beste batzuen inguruan, berriz, gutxi hitz egin da. Bizkaian, azken hilabete-

tan, argia ikusi dute umeen kontrako hainbat erasok. Adibidez, egun 13 urte eta erdi dituen neska bat, hogei egunean, bederatzia aldiz ospitaleratu behar izan du amak. Antsietate izugarriak jota eta dardaraka. Alde bate-tik bestera korrika hasten da. Leiho eta atea zabaltzen ditu ingurukoek entzun dezaten, aita kartzelara sartzeko, hilda nahi lukeela eta berari sufriarazitakoa sufritzea nahi duela. Amaren hitzetan, “traumak eragindako estresa du”. Ospitalera eramaten du halakoe-tan, lasaigarriekin medikatu eta etxera bidaltzen dute. Horrexek eragin zion azken ospitaleratzea, gehiegizko medikazioagatik gaindosia zuen. Kasualitatez edo kausalitatez, hogei egun horiek bat datoz Bizkaiko Auzitegiak aitaren aurkako salaketa artxibatu zuela jakitearekin. Helegite guztiak agortu ondoren.

Izango da gaztiguak gogor-tzeko eskatuko duenik. Bestela esanda, kartzelaldiak luzatzea zilegi dela pentsatuko dute batzuek. Beste batzuk, aldiz, espetxea pertsonen-zaborte-gia gisa ulertzen dute. Izan ere, bertara sartzen dituzte eurekin zer egin ez dakitenean eta zenbait urteren buruan kaleratzen dituzte gatibuak. Birgizarteratzeaz hitz eginagatik ere, gutxi du horretatik errealtateak. Batek daki zenbat urte isolatuta igaro ostean, berdin-berdin edota berrelikatuta ateratzen dira. Ikusi besterik ez daude Iruñeko presondegiko datuak: gizonetzko-presoen 3/4ak baino gehiago sexu erasoengatik daude bertan.

Esan bezala, ez dira gertakari eta sententzia bakanak. Sistema judiziala sistema heteropatriarkal zapaltzailearen tresna hutsa da. Horrelako erabakiek argi uzten dute

emakumeon* segurtasuna ez dela lehentasuna sistema judizialarentzat. Kasu horrek alarma gorriak piztu arren, eguneroko indarkerien adierazle bat gehiago besterik ez da.

Horri guztiari buelta emateko beharrezkoa da erakunde, eragile politiko eta sozialen konpromisoa. Parekidetasuna edota feminismoa zeharka landu behar da, gai guztietan. Izan ere, ez da “emakumeen* kontu bat”. Giza eskubideen kontua da, guztiona, jendartearena.

PD: Ez dut idatzi hau, inondik inora ere, diskurtso pun-tibistak indartzeko erabili nahi. Indarrak prebentzioan sakontzeko eta jendarte feminista eraikitzen jarri behar dira, soilik hori baita irtenbi-dea eta halakoak ez errepikatzen bermea.

Maialen Unanue | **Garazi Lizaso Manterola** | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Imanol Ubeda | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

Ekintzaileentzako diru-laguntza deialdiak

Proiektu bat eskuartean izan edo garatu nahi duen ekintzaileari zuzendutako bi udal diru-laguntza deialdi martxan ditu Usurbilgo Udalak. Eskabi-deak bideratzeko irailaren 30era arteko epea zabaldu dute. Bate-tik, hutsik dauden merkataritza lokalak biziberritzeko deialdia dugu, jarduera ekonomiko berri bat martxan jarri nahi dutenei

zuzendua, lokalaren alokairu gastuei aurre egiten laguntzeko. Bestetik, Hasiz Hazi, proiektu bat lantzen ari den ekintzaileari Kabiennen urtebeteko egonaldia egitea ahalbidetuko dion beka deialdia.

Informazio gehiago, maiatzaren 25 eta 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean edo usurbil.eus atarian.

KzGunea arratsalde zabalduko dute uztailean

■ Ekainak 27-28, 11:00-13:00 “Instagram”.

■ Ekainak 28-29, 09:00-11:00 “Erosketa seguruak Interneten”.

■ Uztailak 3-11, 16:00-18:00 “Smartphoneak eta tabletak. Android gailua erabiltzen ikasi”.

■ Uztailak 12-13, 16:00-18:00 “Bapateko mezularitza zure Smartphone bidez”.

■ Uztailak 16-25, 16:00-18:00

“Google aplikazioak zure ku-deaketa pertsonalerako”.

■ Uztailak 26-27, 16:00-18:00 “Argazkiak. Zure argazki guz-tiak antolatu edozein gailutik”.

■ Uztailak 30, 16:00-18:00 “Or-dainketak Interneten segurtasunez”.

Informazio gehiago:

943 023 684

tutor.usurbil@kzgunea.net

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAIk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: uztailak 6. Idatzia ekartzeko azken eguna: uztailak 2.

“Erosi Usurbilen Berriaren eskutik”

1.300 euroko zozketa

Oparo dator uda, herriko komertzio eta tabernetara. Usurbilen eros-teagatik, guztira 1.300 euro irabazteko aukera izango da, uztailaren 16an egingo den zozketa berezi batean. Ekimena Berriak, Usurbilgo Udalak, Hurbilago Elkarteak eta Berri-laguna kanpainarekin bat egin duten ostalari eta merkatariak sustatu dute, Berri-laguna kanpainaren testuinguruan.

Hiru aste barru ospatuko den zozketan parte hartzeko egin beharrekoa erraza da; Usurbilen erosi, Usurbilen kontsumitu. Uztailaren 13ra arte, dendetan erosketak egiten diren bakoitzean boleto bat jasoko du bezeroak. Boleto hauek eskuratzen dituzten herritarren artean, 500 euroko bi sari banatuko dira uztailaren 16an. Bestalde, Hurbilago Elkarteak antolatutako Tipi Tapa ekimenean pintxoak dastatzearren truke, tabernariak zigilatutako txartelaren bidez ere zozketa honetan parte hartu eta 300 euroko sari bat irabazteko aukera izango da.

Denok irabazle

Berriak 31 babesle ditu, 31 Be-



Berria egunkariko komunitatea indartzen lagunduko du kanpaina honek.

ZOZKETA

“Uztailaren 13ra arte, dendetan erosketak egiten diren bakoitzean boleto bat jasoko du bezeroak. Uztailaren 16an, 500 euroko bi sari banatuko dira”

rialagun Usurbilgo establezimenduen artean. Kanpainan parte hartuz, Berria babestuko da noski. Halere, “helburua denok irabaztea da”, zioen ekimen honen joan den asteko

aurkezpenean, Andoni Alvarez Berriako ordezkariak. Berriak, euskarak, Usurbilgo merkatari eta ostalariak eta herritarrek irabaziko dutela azpimarratu zuen.

Berriaren komunitatea indartzen lagunduko du kanpaina honek. Berriaren babesle dira herriko 31 establezimendu, baita Udala ere. “Euskaraz informatua izatea euskaldunon eskubidea da, eta beste zenbait alorretan bezala hemen Berriak lan garrantzitsua egiten du eta eskertzekoa da”, zioen Alaitz Aizpurua zinegotziak.

Orain arte bezala, Berria babesten segitzeko konpromisoa adierazi zuen.

Kanpainaren berri izan eta berehala bat egitea erabaki zuen baita Hurbilago Elkarteak. “Oso aproposa eta egokia ikusten du”, adierazi zuen elkarte-ko ordezkari Juanjo Allurrek. Aproposa herrian erosten duten herritar eta bezeroak sarritu dituelako eta Berri-lagunen komunitatea indartzen lagunduko duelako. Positiboki baloratu zuen baita, Berriak 31 lagun izatea herriko establezimenduetan.

Herri merkataritzaren sendotzeko deia

Kanpaina honen testuinguruan, kezka eragiten ari den gaia hartu zuten ahotan. Irun aldetik hasi eta gure inguruetaraino eraikitzen ari edo aurreikusitako merkataritzaren gune berrien edota dauden hainbat handitzeko proiektuak. “Irunetik hasita hona bitarte, 200.000 metro karratuko lur eremua bideratu nahi da izan proiektu berriak edo lehengoak berritzera, merkata-

ritza gune handietara”, ohar-tarazi zuen Alaitz Aizpurua zinegotziak.

Esan beharrik ez da horrek zer nolako eragina izango duen herri mailako merkataritzan eta ostalaritzan, herri bizitzan eta euskararen presentzian. Horregatik, ekimen hau, “herriko merkataritzaren bultzatzeko ere baliagarria izango da eta baita euskararekin lanean aurrera jarraitzeko

ere”.

Ildo beretik mintzatu zen Juanjo Allur. Aurreikusitako merkataritzaren gune handien proiektu berriak edo daudenen handitzeak, egun zabalik direnekin batera “me-hatxu zuzena dira herri merkataritzarentzat, herrietako kale bizitzarentzat”.

Berriak lagunak behar dituen moduan, Allurrek zioen, “Usurbilgo merkataritzaren

eta ostalaritzaren herri merkataritzaren gertu sentitzen duen komunitate baten beharra du”. Hau da, merkatari eta ostalarien eta ahalik eta herritar multzo zabalaren beharra. “Ea herri merkataritzaren aldeko apustu hori egiten den eta eredu hori gertuko sentitzen dutenen komunitate bat osatzen dugun guztion artean. Eraiki dezagun komunitate hori”.

Eusko Legebiltzarrak saltoki handien neurrigabeko zabalkuntza mugatzea txalotu du EHBilduk

Bidasoa aldetik hasi eta inguruotaraino aurreikusiak dauden merkataritza gune handien hainbat proiekturen edota egun zabalik dauden beste batzuen handitze eskarien aurrean, agerraldi bateratua egin zuten joan den astean, Usurbil eta Lasarte-Oriako EHBilduk.

Prensaurrekoa, egun batzuk lehenago Gasteizko Eusko Legebiltzarrak saltoki handien neurrigabeko zabalkuntzari mugak hartzeko hartutako erabakiaren ostean zetorren. Parlamentuak hartutako neurria txalotu zuten. EHBilduk aurkeztu zuen legez besteko proposamena, eta horretara batu ziren Podemos-Ahal Dugu eta PP. "Hala, Legebiltzarrak Eusko Jaurilaritzari eskatu dio hiru hilabeteko epean saltoki handien gaineko plangintza bat eta egutegi bat aurkezteko, eta, plana onartu bitartean, moratoria bat ezartzeko egun mar txan dauden handitze-eskaerei edota proiektu berriei. Lehen puntuak alderdi guztien aldeko bozka jaso bazuen ere, moratoria eskaeraren aurka egin zuten EAJk eta PSEk", EHBilduko ordezkariak berri eman zuten.

Lanpostuen suntsiketara

Gai honekiko kezka agertu zuten bi udalerriotako koalizioako ordezkariak. Eskuorriak banatu dituzte egunotan etxez etxe. Kezkatuta daudela gaineratu zuten, merkataritza



Agerraldi bateratua egin zuten joan den astean, Usurbil eta Lasarte-Oriako EHBilduk.

KEZKA NAGUSI

"Dagoeneko denda txikien %15a desagertu da. Aurreikusitako proiektu berriak gauzatuko balira, egoera okertuko litzateke"

kiak, herrietakoak, datorrena ikusita. Egun, merkatalgune handiek 206.000 metro karratuko lur eremua hartzen dute Irun-Usurbil tartean. Kopuru hori bikoiztu daitekeela ohar-tarazten du EHBilduk, "berehalako neurriak hartu ezean". Gune berriak sortu edo daude-nak handitzeko eskaerak ugari-tu direla ohar-tarazten dute. "Zaldunborda, Illunbe, Garbera, Belartza, Urbil, Michelingo

proiektua, Teresategi eta beste hainbat. Donostialdea, de facto, korridore komertzial handi bat bihurtuko litzateke", adierazi zuten.

Horrek ekar ditzakeen ondorio kaltegarriez ohar-tarazten dute. Dagoeneko denda txikien %15a desagertu da. Aurreikusitako proiektu berriak gauzatuko balira, egoera okertuko litzateke. "Lanpostuak sortu baino suntsitu" egingo litzuzte. Eta denda txikien desagertzeak, herrien giroan eragingo lukete zuzenean. "Herri biziak nahi ditugu", adierazten du EHBilduk. Merkataritza txikia zaintzeko neurriak sustatzea beharrezkotzat jotzen dute. "Gu, geure herrietan, ahalegin horretan gabilta. Eskuz esku merkataritza-taldeen lanean".

Saltoki handi eta merkataritza txikiaren arteko oreka ber-matzea ezinbestekotzat jotzen dute.

Muga jartzea

Are gehiago, mundu mailako joera ikusita. "Merkataritza-guneak ixten ari dira", online merkataritza indartu izanaren ondorioz. Sektorea erregulatzea eskatu zuten, "Udalez gaindiko planifikazioa egitea, eta neurritz kanpoko handitze-eskaera horiei muga jartzea. Inoiz baino beharrezkoagoa da merkataritza-, kontsumo- eta bizi-ohiturak zaintzea, eta gure herrietako izaera, erro sakonak dituen, babestea. Ardura horri ihes ez egiteko eskatzen diogu Eusko Jaurilaritzari eta heldu diezaiola gaiari adarretatik".

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Zumartekoak ere oporretara

Merezitako atsedena heldu zaie Zumartekoei ere. Oporretara joan aurretik ordea, ikasturte amaierako kontzertu sorta eskaini dute azken hamabostaldian. Ondoko irudietan, Santuenean pop-rock, folk eta gitarra taldeek eskainitako emanaldia, trikitixa-pandero taldearen eta txarangak Kaxkoan barrena eginiko kalejira, eta Sutegin gaztetxoaren abesbatzak eta talde instrumentalek eskaini zuten saioa duzue.

Obren kontratua esleitzear

Ezohiko ikasturtea izan dute aurten. Hamarkada luzez musikariaren etxea izandako Villa Pilar eraikina birgaitu eta handitzeak direla eta, herriko beste lokal batzuetan dira behin behinean Zumartekoak. Gai honi lotuta bada nobederik. Musika Eskolako lanen abiatzea hurbiltzen doa. Maiztasun hasieran udalbatzak eginiko ezohiko osoko bilkuran, birgaitze eta handitze lanen esleipen deialdira aurkezturiko eskaintza onena gisa Construcciones Moyua SL izendatzea



Goiko argazkian, pop-rock, folk eta gitarra taldeek eskainitako emanaldia Santuenean. Azpiko argazkian, trikitixa-pandero taldeak eta txarangak, Kaxkoan barrena eginiko kalejira.

onartu zuten udal ordezkariak. Astearte honetan (ekainak 27) egitekoak ziren osoko bilkuran,

obren kontratua bera esleitzekoak ziren. Xehetasun gehiago, datorren astekarian.

Udajolasera begirako oharrak

192 haur eta gaztetxo daude izena emanda, NOAUA! K.E.-k eta Usurbilgo Udalak antolatutako udako ekimenean. Adi, uztailearen 3tik 27ra izango dugu Udajolasi begira kontuan hartu beharreko ohar hauei:

Puntueltasuna

■ Orduetgia errespetatzea beharrezkoa da: 09:30-13:30 (Irteera egunetan: 09:30-16:30). Haurrak frontoian utzi eta jasoko dira, kontraktorik esaten ez bada behintzat.

Funtzionamendua

■ Haurren batek udalekutako ordutegian botikaren bat hartu behar badu, guraso baimena idatziz ekarri behar da.
 ■ Etxera bidalitako oharrak errespetatu egin behar dira.
 ■ Haurrek egunero hamaiketako ekartzea beharrezkoa da eta egun osoko irteera egunetan bazkaria eta hamaiketako. Hamaiketako eta bazkariari izena jartzea komeni da.
 ■ Haurra udalera bixera batekin eta krema emanda etorriko da.

■ Haurrak beharrezkoa badu aldatzeko arropa ekarriko du.
 ■ Haurrek etxetik ezin dituzte ekarri: jostailuak, dirua eta telefono mugikorra. Ekarriko balituzte, beraien ardurapean geratuko liriteke.
 ■ Udalekuak amaitzen direnean udalekuen ebaluazio-orria pasako zaizue.
 ■ Guraso bileretan parte-hartzea garrantzitsua da.

Kontaktua

■ Beharrezko kasuetan bakarrik erabili: 943360321 (8:00-15:00).

Udarako eskaintza zabala Gaztelekuan

Oporren hasierak, urte garai honetan antolatu ohi diren udako aisialdi ekimeneen abiatzea dakar. Gogoan izan, txokoak antolatu direla Aginagan eta Zubietan. Udako ekintzak Gaztelekuan eta Udajolas Usurbilen. Gaztelekuak eskaintza zabala prestatu du. Txangoak tartean. “Irteerak egun osokoak izango dira eta guraso baimena Gaztelekuan jaso behar da eta bertan zehaztuko da ordutegia eta zer eraman behar duen” gazteak.

Eskaintza:

- Ekainak 28: Logika jolasak (DBH 2).
- Ekainak 30: Ur jolasak (DBH 1).
- Uztailak 5: Pelikula + palomita.
- Uztailak 6-7: “Uda 2018” irteera (DBH 3).
- Uztailak 9: Kamisetak tindatu.
- Uztailak 12: Ur jolasak.
- Uztailak 13: Telareekin eta trapiloarekin eskulanak.
- Uztailak 16: Gaztelekuko konponketa eta margotze lanak egin.
- Uztailak 19: Hernaniko igerilekura irteera (DBH 2).
- Uztailak 20: Donostiako irlara irteera (DBH 1).
- Uztailak 23: “Bideo tailerra” (“Beldur barik” ekimenerako ideiak landu).
- Uztailak 26: Datorren ikasturteari begira, Gaztelekua txukundu eta agurrarekin egin.

Informazio gehiago:

943 371 050
 688 713 838
 gaztelekua@usurbil.eus

Indarkeria sexistaren aurkako protokoloa eta esperientzia aurkeztu du Udalak Foru Aldundian

Indarkeria sexistaren aurkako erantzun publiko instituzionalerako Gipuzkoako udalerrirentzako lehen protokoloa, "Aurre!" Foru Plana aurkeztu zuen joan den astean Diputazioak. "Protokolo honek ekintza esparrua eta erantzun harmonizatu eta estandarizatu komuna eskaintzen du Gipuzkoa osorako, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako batasuna adierazteko eta berdintasunaren aldeko irudi bateratua emateko helburua duena".

Dokumentua herrialde osoko hamarnaka udal hautetsi eta alkateek parte hartu zuten jardunaldiaren baitan aurkeztu zuten. Hitzordu horretan, eremu honetan zenbait udalek duten esperientzia eta eginiko lanketa plazaratzeko aukera izan zuten; tartean, Usurbilgo Udalak.

Arreta, udal protokoloaren ardatz nagusia

Urte hasieran Usurbilen izandako indarkeria sexista kasuaren harira, Udalarri egitea egokitu zitzaion kudeaketa lana



"Aurre!" Foru Plana, Gipuzkoako udalerrirentzako lehen protokoloa aurkeztu zuten joan den astean Diputazioan.

AURRE! FORU PLANA

"Gaiari erantzun azkarra eman behar zaio baina gauzak ondo egin behar dira. Azkar erantzuteagatik, gero atzera bueltarik ez duen hanka sartze bat egin liteke"

aurkeztu zuen, Gipuzkoako udal eta foru ordezkari hainbaten aurrean.

Udalak 2016an Ertzaintzare-

kin eta Osakidetzarekin genero indarkeriaren eta sexu eraso biktima diren emakumeei arreta hobea emateko erakundeen arteko jarduerarako eta koordinazioarako lehen udal protokoloa hitzartu zuen. Erasotuari zuzenduriko arreta da, udal protokolo honen ardatz nagusia. "Protokolo hau oso ondo etorri zitzaigun lehen unetik", azaldu zuen Xabier Arregi alkateak. Eraso gertatu eta berehala jarri zuten martxan aipatu udal protokoloa. Gai honetan ardura duten udal eta foru zer-

bitzuak aktibatu zituzten.

Anonimotasuna babestea

Garrantzitsutzat jotzen zuen alkateak, halako egoeren aurrean erabakiak hartzerakoan, zer baliabide dauden jakitea eta tentuz jokatu beharra ere azpimarratzen zuen. "Haserrea duzu, zerbait egin behar da. Gaiari erantzun azkarra eman behar zaio baina gauzak ondo egin behar dira. Azkar erantzuteagatik, gero atzera bueltarik ez duen hanka sartze bat egin liteke. Hor tentu pixka bat izatea beharrezkoa da".

Kasu zehatz honetan, erasotuen, bere senideen eta erakundeen arteko hartueman hasieratik eman zen, erasotua berak senide batekin anbulatortira lehenik eta handik udal gizarte zerbitzuetara jo zutelako.

Egoera honetan, alkateak zioenez, "hasieratik ikusi genuen anonimotasuna zaintzearen beharra". Modu horretan, berehala ekin zioten lanketari, ezer publiko egin gabe. Koordinazio mahai bat eratu zuten, Ertzaintza, Udaltzaingoa, alkate eta gizartze zerbitzuen artean.

Erasotua erdigunean jarri beharra

Anonimotasuna ordea, eraso gertatu eta biharamunean hautsi zen, albistea hedabideetan zabaldu ostean. "Ez dut errudunik bilatzen. Baina zer zaila den albistea gordean izatea, akaso hortik ere ikasi egin behar da baita ere", zioen alkateak. Hau gertatu ostean, familiarekin hartuemanetan jarri eta prentsa ohar bat kale-

ratzea erabaki zuen Udalak eraso salatu, eta herritarrak, Usurbilen gai honekin inoiz egin den elkarretaratze jendetsuena izango zen horretan parte hartzeraz deitzeko.

Zer hobetua badela zioen alkateak, erakundeen arteko protokoloak duten garrantzia nabarmentzearekin batera. "Koordinazioa ezinbestekoa

da, informazioa eta hedapen akatsak saihestu behar dira. Erasotua erdigunean jarri behar da. Guk ditugun jarrera barrutik ateratzen zaiguna bigarren planora eraman erasotua erdigunean jarri. Epailak berariazko prestakuntza behar dute. Batasuna eta elkarlana ezinbestekoa da".



"Koordinazioa ezinbestekoa da, informazioa eta hedapen akatsak saihestu behar dira".

“Hau ez da justizia!”

Nafarroako Auzitegiak 6.000 euroko fidantza-pean aske utzi ditu behin behinean, Iruñeko 2016ko San Ferminetan emakume bat taldean erasotu zuten gizonen zuzendakariak. Aipatu auzitegiaren erabakiak emakume guztiak babesik gabe uzten dituela salatzeko, hau ez dela justizia salatzeko jendetza batu zuen, Usurbilgo Sortuk deituta, ekainaren 22an Usurbilgo Mikel Laboa plazan egindako elkarretaratzeak.

Erasotzaileen biktimari eta oro har, indarkeria matxistaren biktima guztiei babesia adierazi zieten, baita Martxoaren 8ko zein “Nik Sinesten Dizut” mugimenduei.

Adierazpena

“Atzo (ekainak 21) jakin genuen Sanferminetako bortxatzaileak probisionalki aske geratuko zirela 6.000 euroko fidantza iragarria ordainduz. Gaur kalean dira.



Ekainaren 22ko elkarretaratzean jendetza batu zen.

MANIFESTUA

“Erabaki honek babesik gabe uzten ditu emakume guztiak; sistema ez da gai emakumeen bizitzak babesteko eta ez ditu emakumeen eskubideak bermatzen”

Epai onartezina jaso genuen orain dela bi hilabete: emakumeen eskubideen kontrako epaia izan zen. Bortizkeria instituzionalaren adibide bat: biktimaren errelatoari sines-

garritasuna kenduz, bere bortxaketaren errua botaz, irakurketa patriarkala, misoginoa eginez. Hau ez da Justizia.

Oraingoan, berriro ere, erakusten digute jendartearen aldarri nagusietatik oso urrun daudela, ez dutela entzun nahi, ez dutela ezer ulertu nahi... herriari entzungorra den sistema, ez da justizia.

Erabaki honek babesik gabe uzten ditu emakume guztiak; sistema ez da gai emakumeen bizitzak babesteko eta ez ditu emakumeen eskubideak ber-

matzen. Hau ez da Justizia.

Epai eta egoera honen aurrean, M8 eta NikSinestenDizut mugimenduen aldarri gure babesia ematen diegu, gaur egun inoiz baino ozenago.

Helarazi nahi diegu berriro gure babes osoa biktimari eta indarkeria matxistaren biktima guztiei, ez daude bakarrik, guk beti babestuko ditugu.

Bukatzeke, bat egiten dugu eta deia luzatzen diegu herritar orori mugimendu feministaren mobilizazioetan parte hartzeko”.

Ekainaren 28a

Aurten LGBTI+ pertsonen eskubideen aldeko 3. errebolaren 49. urtemuga ospatuko dugu. Ekaineko azken asteburuan zehar izan zen gertakaria, New Yorkeko (AEB) Stonewall izeneko taberna-diskotekan.

LGBTI+ kolektiboaren aurkako indarkeriazko enfrontamenduak nagusiki transexualen eta New Yorkeko polizia artean izan ziren, maiz jasan behar izaten zuten txantai, hitzezko biolentzia, umiliazioen aurrean amore eman ez eta aurpegia eman ostean.

EHGAM-eko militanteentzako, Ekainaren 28ak, duintasunaren, askatasunaren, eskubide zibilen eta gure ikusgaitasunaren aldeko borroka irudikatzen du. Ez hemen, ez inon,

inolako eraso motarik gabe bizitzea aldarrikatzen duen borroka da.

Guretzat ekintzarako egun bat da, gure herrietako kaleetara atera eta “Hemen gaude eta ez gara ezkututzen!” aldarrikatzeko, duela 42 urte LGBTI+ fobien aurkako eta gure eskubideen aldeko borroka abiatu ostean.

Gure lanaren helburu izan ziren lehen unetik hedabideak. Gutaz, helarazten zituzten estereotipoekin amaitu nahi izan genuen prentsan, irrastian, telebistan.

Garaiak aldatu direla argi dago. Hau 42 urteotan lortu dugu, erakunde, LGBTI+ ekintzaile eta eragile taldeek, inork ez digu ezer oparitu.

Ikusgaitasuna egun handiagoa eta hobea da, eskerrak.

Gaur, hausnarketok inolako zentsurarik gabe irakur ditzakezue. Gure bizitzaren errealitateak ikusi bezala adierazi ditzakegu, LGBTI+ pertsonen gisara, gure herrietan, konfiantza handiagoz.

Baina oraindik ez ditugu gure helburu guztiak bete. Ekai gogorazi nahi dugu, eta kolektiboki pentsatu, transfobia gizon eta emakume transexualen eta haien senide lagun eta abarren arazo askoren eragile dela.

Zure burua epaitua ikusteak, txikitatik zorigaiztoko pertsonak egiten gaitu, bizitza hondatzen digute... LGBTI fobia ezabatzeke hezkuntza integrala defendatzen dugu, transbertsala, bizitza hasieratik. Milaka lagun izango gara, eraso, onarpen, eskubide eta askatasun faltaren aurrean,

“aski da!” esaten zuten haiek oroitzera kalera irtengo garenak. Munduko 80 bat herrialdeetan gure sexu bereko pertsonak desio eta maite ditugunoi edota generoa heteropatriarkatu-binariar fundamentalismotik kanpo bizi dutenei zuzendutako araudi errepresiboak dituztela ahaztu gabe. 9 herrietan heriotz zigorrera kondenatu gaitzaketela salatzen dugu.

Gure ekintzen esku dago orain nahiz etorkizunean LGBTI+ fobiatatik libre egongo den Euskal Herrian bizi ahal izatea.

Gora Ekainaren 28a!

EHGAM

Oharra: Ekainaren 28an lazo bat jarriko du Udalak txupinazioaren ekitaldiaren eremuan.





San Juanetako argazki eta bideo gehiago NOAUA!ren sare sozialetan eta noaua.eus web orrian.

Elkartasunari gorazarre, jaien hasieran

Iñaki Astiasuinzarra Iras-torza, Xabier Iribar Amigorena, Raimundo Lizarreta Gorriti, Juantxo Esnaola Etxabe eta Ramon Agirre Arruti ditugu lerrootako protagonistak. Lerrootakoak eta abiatzear diren jaietakoak. Santixabelei hasiera emateko suziria haiek jaurtiko baitute, 15 urte luzez herriko hainbat ekitaldietan, hainbat eragile laguntzeko gaztainak erre eta saltzen aritu den talde solidarioak.



15 urte luzez herriko hainbat ekitaldietan, hainbat eragile laguntzen gaztainak erre eta saltzen aritu dira.

NOAUA! Herri bozketak erabaki du zuek jaiiei hasiera ematea. Errekonozimendu modukoa izango da zuentzat?

Ezuste eta poz handia izan da. Ez genuen halakorik espero. Guretzako ohore handi bat da herriak gu aukeratu izana. Oraindik are gaztaina gehiago erretzeko gogoia ematen du, dudarik gabe.

Gaztain erretzaile eta saltzaile urte luzez, baina zuena talde solidarioa ere bada. Nolatan hasi zineten jarduera honetan?

Beti izan da talde solidarioa, hasiera hasieratik. Orain 15 urte Irunberriko Ikastolan ekaitza izan eta suntsitua geratu zen. Laguntza eske hasi ziren. Kuadrilan beti komentatzen genuen gaztainak erretzen hasteko ideia. Ikastola honena gertatu zenean orain dugu aukera esan genuen. Gaztainak egin eta ateratako

GAZTAIN-ERRETZAILEAK

“Ezuste eta poz handia izan da. Ez genuen halakorik espero”

dirua hara bidaltzea erabaki genuen. Bi danbolina txikiarekin hasi ginen. Orain danbolin handi batekin bakarrik ibiltzen gara, nahikoa ematen digulako. Ikusten genuen beste herri batzuetan gaztaina erabiltzen zutela festetarako, eta hemen zergatik ez? esan genuen. Usurbilen hasi ginen poliki poliki. Aitzaga Elkarte orduantxe hasi zen Artisautza Azoka antolatzen. Pauso handiena hor eman genuen. Gaztainak Aitzagak ordaintzen zituen, eta ateratako dirua

helburu solidarioa bideratzen zen. Handik urtebetera beste ikastola batentzat dirua bildu genuen. Geroago, herriko presoentzat, erraustegiaren aurkako plataformak antolaturiko ekitaldietan, hemengo ikastolarentzat, gabonetan zaharren egoitzarako... laguntza biltzen aritu gara. Urtero sei bat saio egiten ditugu, denak solidarioak.

Eta guztiak noski udazken eta negu partean, gaztainak dastatzeko garaian.

Gaztaina genero nahiko ahula da, neguan bakarrik da posible egitea. Halere nahiko komeria badago. Hemengo gaztainerkin ezin da egin.

Gaztainak eskuratzeko nola moldatzen zarete orduan?

Kanpoko gaztaina behar du.

Gaztaina ona, normalean Galizia aldekoa, Jerte bailarakoa, Avila aldekoa da, baina garestia da. Iaz arazoak izan genituen kanpoko gaztainerkin. Urte hain lehorra izan zen, gaztaina ere oso gogorra etorri zela. Gaztainak erretzen genituen. Erre eta segituan ondo zeuden. Gero segituan ordea, gor gor eginda jartzen ziren. Entzun genuen nonbait, beratzen ere jartzen zituztela. Hala asmatu genuen. Gau osoan gaztainak beratzen utzi eta biharamunean oso ondo zeuden. Gaztaina onenetakoak izan ziren.

Usurbildarrak gaztain zaleak al dira?

Bai. Gaztain zaleak, gehienek bai gustura dastatzen dituzte. Orain badaramatzagu bi urte, Usurbilen gaztainerkin egun bat antolatzeko ideiarekin bueltaka. Pixkanaka ari gara, baina denbora nahikorik ez dugu. Galizian edo Portugalen zenbait tokitan egiten dute. Halere, hemengo generoarekin nahiko zaila izango dugu. Kanpotik ekartzeak berriz diru asko eskatzen du.

Gaztainerkin kultura zabaltzea zenukete helburua.

Bai. Garai batean postretarako ere erabiltzen zen. Orduan kontserbatzeko beste forma bat izaten zen, belar tartean, lur azpian gordeta baita.

“Borondatearekin gauza asko lortu litezke”

**Ostegunean udaletzeko balkoi-
ra igoko zarete. Zer esan nahi-
ko zenukete?**

Eskertu eta hala segitzeko asmoarekin gabiltzala. Egiten ditugun gauzak egiten ditugula gogotsu, pozik eta gustura.

Eta lagun artean. Taldea aipatu dugu, baina zuena lagun

koadrila da.

Baten bat falta bada, koadrila beti izaten da laguntzeko prest.

Nolakoa da zuen jardun egun bat?

Goizean 8:00etan hasten gara. Dena ondo ateratzeko sua ordu horretarako piztu be-

harra dago. Sua piztu, 8:30ak alderako gaztainerkin lehen danbolinkada jartzen dugu. Hiru danbolinkada, gutxigorabehera ordubete bakoitzak 30 kilo gaztain inguru.

15 urteetan une gogoangarri asko biziko zenituzten.

Lehen, borondatea eskatzen

genuen. Azkenerako xentimo piloa agertzen zen. Kukurutxo bakoitza 2 eurotan jarri genuenean, orduan ikusi genuen zein zen solidarioa. Bestalde, tabernari hainbaten borondatea eskertu nahi genuke. Edaria emanez lagundu izan digute. Borondatearekin gauza asko lortu litezke.

Larrian Gozo, estreinakoz jaietan plazara

Erromeria eta dantzarako musika talde berria du Usurbilek; Larrian Gozo. Haraneko lokalean dabiltza egunotan, azken prestaketetan murgilduak. Landutakoa plazaratzeko gogotsu jada.

NOAUA! Nolatan elkartuz zarete?

Larrian Gozo: Taldeko lau kideek Zumarten erromeria talde bat genuen aspaldi. Utzi egin genuen. Baina gure kintan beti izan gara, musikariak eta erromeria zaleak. Talde bat osatu behar genuela, aspalditik esaten genuen. Whatsapp talde bat sortu genuen duela bi urte. Iaz hastera erabaki genuen. Taldearen izenak siesta batekin du lotura. Belardi batean botata egin genuen siesta eta bat batean oraintxe larrian gozo! esan genuen. Erromeria taldearentzako izena horrexek behar zuela genion. Hala geratu zen.

Taldea hilabetetotan jarri duzue martxan.

Ikasturte honetan, irailean. Hasieran ez genekien non entseatu. Romerotarrak gurekin hasi zirenez, esan ziguten Haraneko lokalean bateria zutela eta hemen hasi ginen.

Zer moduzko martxa hartu du taldeak?

Ondo. Ostiraletan geratzen



Jaietako azken egunean arituko dira.

LARRIAN GOZO

“Erromeriak lehen euskal tradizioan zuen garrantzia asko galdu du, halere gazteen artean festetan gehiago baloratzen dute erromeria egotea. Festa guztietan dago”

gara, orain goizero hemen sartuta gabiltza.

Azken txanpan zaudete jada. Aurrez plazan jendaurrean aritutakoak zarete. Esperientzia hau ordea desberdina izango da ezta?

Berezia eta oso desberdina. Kide batzuen kasuan, Zumarteko irakasleen babesean ez

gauden lehen aldia izango da. Orain arte beti lau kanta jo izan ditugu gehienez, astelehenekoa bi orduko emanaldia izango da, asko da. Zumarteko erromeria taldean aritu ez garen kideontzat ere ez da gauza bera metal edo rock and roll talde batean jotzetik bapatean erromeria taldean jotzera igarotzea, aldaketa handia da.

Bi orduko saioa aurreikusten duzue. Zer da ikusi eta entzungo duguna?

Egia esan denetarik. Gehienbat betiko erromeriko kantak entzungo dira. Izango dira ordea, beste kanta sorpresa batzuk. Erromeria baino gehiago berbera taldea dela esan liteke. Lau kanta berri sartu genituen trikitixa alboratuta.

“Entseatu eta entseatu ari gara”

NOAUA! Usurbilen duzue lehen emanaldia. Hortik aurrera begira jarriak zarete?

Larrian Gozo: Bigarren emanaldi bat lotua dugu abuztuaren 16an Orendainen, Tolosaldean. Usurbilgoa giro informal batean ospatuko dugu, lagunaren aurreko aurkezpen modukoa izango da. Guk geure burua ikusteko.

Nola biziko dituzue festok?

Kontzertua azken egunean izanda, ahotsa pixka bat zaindu behar da. Gainera festetan zehar urduri izango gara, astelehenean jo behar dugulako. Baina gogotsu. Kontzertuan jotzen hasi eta gozatzen hasteko gogoz gara.

Entsegetan murgilduta, lanketa hau plazaratzeko go-

goa ere izango da.

Hainbeste entsegu, azkenerako gogorra egiten da. Lehenengo kontzertua izango denez, entseatu eta entseatu ari gara. Plazan ikusten dena da, zu plazan zauden bi ordu horiek, baina atzetik dauden lan ordu horiek guztiak ez dira ikusten. Halere ondo pasatzen dugu. Giro ona dugu taldean.

Zumarteren babesean

NOAUA! Zumarteko kideak zarete gehienak. Atzetik datozenei begira, erreferentzia ere izan zaitezke.

Hasieran musika instrumentu bat erosten duzunean ezin dut jo esatean, balio dezake ikusteko, urte batzuk barru jo daitekeela. Taldeak Zumartekin ez duela lotura esan dugu, baina Zumarten guk txikitatik talde bat eduki izanak lagundu digu orain. Garai batean gure erromeri taldea izan ez bagenu orain ez ginen animatuko. Zumarteko iralaslerei taldearen berri eman genienean poz handia hartu zuten. Edozein zalan-tza izanda, laguntzen gaituzte. Kanta batzuk gure kontura ikasten ditugu baina asko beraiek erakusten dizkigute. Lehenagotik ikasitako kantak ere aprobetxatzen ditugu. Beraien babesa beti egin da.

Zergatik ez dugu galdu behar zuen asteleheneko emanaldia?

Festei giro onean bukaera on bat emateko. Dantza pixka bat egin eta kantatzeko. Talde berri bat gara, etorri eta ikus dezatela, ia zer iruditzen zaien. Jendea biltzeak ilusioa egingo digu. Gu ere gusturago egongo gara. Herri giroan gozatzeko gaua izango da. Herriko bi talde izango ditugu, aurretik Zaparrak joko du.

“Larrian Gozo” taldeko kideak

- Ane Azkonobieta Irazusta, trikitixa eta panderoa, koroak.
- Lide Pagola Agorreta, gitarra.
- Olatz Allur Maiz, gitarra eta abeslaria.
- Xabi Lazkano Iturrioz, baxua.
- Mikel Romero Aizpurua, bateri jolea.
- Nagore Lertxundi Olazabal, trikitixa eta panderojolea.

Manex Torrealdei Gorriti, Laiotz-eko kide berria

Festarik festa ibiltzea egokituko zaio aurtengo udan Manex Torrealdei Gorriti usurbildarrari. Laiotz erromeria talde mitikoak fitxatu du. Igandean Usurbilgo jaietan eskaintzekoak diren kontzertuaren bezperatan elkarrizketatu du NOAA!-k Manex.

NOAUA! Laiotzen fitxaketa nola gauzatu zen?

Manex Torrealdei. Aurreko trikitilari taldea uztekoa zen. Gau batean telefonoz deitu zidaten. Taldearen izena esan zidaten baina ez nien ulertu. Proposamena azaldu ostean, taldearen izenagatik galdetu nien. Laiotzekoak zirela esan zidaten. Barrez erantzun nien, majina bat parranda eginak nituela haiekin. Proba bat egitekotan geratu ginen. Nahiko gaizki egin nuen, urduri bainintzen. Halere gero deitu zidaten. Entsegu saio gogorak egin ditugu, orain asteroko kontzertuekin hasi gara.

Zer moduzkoa izan da egokitzapena?

Oraintxe 27 urte ditu taldeak, ni baino zaharragoa da. Bateria jolea da bakarra hasieratik hor egon dena. Bera da taldeko burua. Oso egina dagoen talde bat da. Erromeriatan 50-60 bat kanta dira. Konturatzen nintzen kanta batzuk modu batera jotzen nituela eta taldeak beste modu batera eginak



“Entsegu saio gogorak egin ditugu, orain asteroko kontzertuekin hasi gara”. Argazkia: Gaizka Peñafiel.

MANEX TORREALDAI

“Trikitilari bezala beti izan dut gustuko Laiotz. Orain publikotik beste alde horretara pasa naiz”

zituela. Hasieran konplexua izan da pixka bat. Denbora bat eskatzen du. Orain pixka bat asentatzen ari naiz. Baina jada bagoaz pixkanaka errimoa hartzen. Usurbila etortzerako erritmoa hartua izatea espero dut.

Talde mitikoa izanda, erantzukizun handiagoa kide berriarentzat.

Iazko taldean lasaiago ibiltzen

nintzen, denak gazteago ginen, plazak txikiagoetan eta jende gutxiagorekin. Aurten bai nabari dut, neurria eman behar da. Laiotzek izena du, hasiera batean neurria ematen ez duena ni naiz, besteak hor daude lehendik. Urduritasun edo erantzukizun puntu bat badut. Lasaiago era berean, zuk nahiz eta gaizki egin, inguruko musikariak oso onak direla jakinda.

Betiko talde ezagunarekin parrandan egon ostean, orain haiekin oholta gainera.

Trikitilari bezala beti izan ditut gustuko Laiotz eta Laket. Orain bapatean publikotik beste alde horretara pasa naiz. Laiotzen jotzen dudala esatean batzuk

harritzen dira, ni nahiko gaztea izan eta talde mitikoa baita.

Laiotzen fitxaketak uda goitik behera aldaraziko zizun. Hila-beteotarako ze plan duzu?

Badira urte batzuk oporrik gabe izan naizela udan, baina orain arte udalekuengatik izaten zen. Iaz horrez gain, Ttipikarekin eta Gabenarekin aritu nintzen. Aurten jada hasiak gara kontzertuekin. Azken aldian, astebururen batean lau kontzertu izatera ere heldu naiz. Bakoitzak bere entseguak behar ditu. Asteburuetan arnasa hartzeko denbora gutxi dut. Eta astean zehar lan egiten dut. Halere, egia esan, gustuko tokian aldapa gutxi.

“Etxean jotzeak urduriago jartzen nau”

Igandean Usurbilen arituko zara Laiotzekin.

Etxean jotzeak urduriago jartzen nau. Nahiko egun lasaia izango da, ez dakit jende asko ibiliko den. Polita izango da halere. Errepertorioa ahalik eta ondoen ikasia izatea espero dut ordurako, ahalik eta gehien go-

zatzeko.

Aldaketak oso azkar datozkizu. Ibilbide honek norantz eramatea nahi zenuke?

Zumarteko musika taldeetan jo izan dut. Ttipika sortzeko horretan Gabenarekin hasi, hura utzi eta Laiotzen orain.

Trikitixa munduan garrantzitsua den Azpeitiko San Jose eguneko jaialdian parte hartu dut. Trikitixa munduan nire izena pixka bat entzuten ari direla jabetu naiz. Horrez gain, Euskal Herriko Trikitixa Elkarteko zuzendaritza batzordean nago eta irakasle

ari naiz trikitixa munduan. Datorren ikasturtera begira, beste pare bat tokietatik deitu didate irakasle bezala aritzeko. Halere hortik ibilbide bat egitera... ez da erraza. Jende oso ona pasa da eta ibilbide oso onak egin ditu trikitixa munduan.

“Trikitixarekin gauza ezberdinak lantzeko aukera ematen dit”

NOAUA! Afizioa ofizio bilakatu duzu.

Manex Torrealdai. Pentsa, duela dela urte batzuk Juanekin aritzen nintzen hemen ikasten. Ni txarrena, alferra nintzen. Uztekotan izan nintzen, agur esatea falta zitzaidan. Ez naiz izan trikiti zale amorratua. Trikitixa serio jotzen 15-16 urterekin hasi nintzen. Hor txapelketa batera aurkeztu ginen, trikitilari herritarrak ezagutu eta haiekin motibatzen hasi nintzen, gaur arte. Polita da, nola uztekotan egonik, datorren urtera begira hortik bizitzera helnaitekeela ikustea.

“Laiotz Tour” bira abiatu duzue. Zer moduz joan dira lehen kontzertuak?

Taldean hasi aurretik, proba



“Trikitixa serio jotzen 15-16 urterekin hasi nintzen”. Argazkia: Gaizka Peñafiel.

moduan Antiguoko jaietan publikotik oholta gainera igotzera gonbidatu zidaten. Huntzaren “Iñundik iñoare” jo genuen, 700 bat lagunuen aurrean. Berezia izan zen eta

polita. Kontzertuetan hasi garenean, Agoitzen taberna batean jo genuen. Esperientzia polita izan zen. Anoetan izan zen lehen kontzertua. Asko gozatu nuen, eskenatoki han-

di batean. Publikoa ere topera aritu zen.

Ze abesti izango dira udan honetan nabarmenduko direnak?

Aurten Gozategik atera du diskoa. Huntzak, Esne Beltzak... emango digute lan pixka bat.

Denetarik jotzen duzue. Errepertorio ireki hori ere publikoak erakartzeko amua izango da?

Polita da. Kaotiko, rock and roll-a eta fandangoa jotzen dugu trikitixarekin, denetarik. Trikitixarekin ere gauza ezberdinak lantzeko aukera ematen du. Gainera beti gustatzen zait, inprobisaziorako tartea uztea. Trikitilari bezala garatzeko ona da hori.

Otar-Goxo
Elkagaiak
HARATEGIA - URDAITEGIA - FRUTADENDA

**TALDEENTZAKO MENUAK!
AUKERA ZABALA!
Zuretzako prestatutakoak!**

12€tik aurrera

Entsalada epelak: (ahate/gulak/ganbak aukeran) + Piper beteak.
+ txekor masailak saltsan / biribilkia / bakailua bizkaitarrara....
+ baserriko azkenburuak...OSATU ZURE MENUA, AUKERA ZABALA!

Zubiaurrenea, 2 • 943 36 55 81 • 20170 Usurbil

Aldizkariko "Gazi, gozo, geza" atala orain ere noaua.eus web orrian

<http://www.noaua.eus>

Etxebizitzak, garajeak, motorra, lanpostuak, trukean...
Zure oharra Internet bidez igo eta kontsulta dezakezu

www.noaua.eus **MERKATU TXIKIA**

noaua

Etorkizuneko herri hondakinen kudeaketarako planaren nondik norakoak aurkeztu ditu GuraSOsek

Gipuzkoarrei hondakinen kudeaketaren inguruan hitz egin, eztabaidatzea ahalbidetuko dien Hitzartu parte hartze prozesua abian da. Urte bukaeran borbilduko da, prozesu honetan landuko den hiri hondakinen kudeaketaren plana gizarteratu eta agintarien esku uztearekin batera. Plan honen gaineko xehetasunak aurreratu ditu egunotan GuraSOsek.

“Gipuzkoako Herri Hondakinen Kudeaketa Demokratikoaren Plan Bateratzailea erredaktatzeko laguntza teknikoaren kontratazioa formalizatu du”, berri eman du GuraSOsek. 35.000 euro gehi BEZ, kostu horixe izango du.

Txostena Hitzarturen mahai teknikoak kudeatuko du, “Residua Ingenieria y Consultoria” enpresaren laguntzaz. “Prozedurak Europako irizpideak jarraituko ditu eta hondakinetan doitutako alemaniar ingenieritza batek homologatuko du”.

Hitzartu prozesu aitzindaria izango dela gogorarazi du GuraSOsek eta prozesuak emaitza gisa plazaratuko duen plana, errealista, egingarria, Europako araudiarekiko homologatua, gardena eta demokratikoa izango dela iragarri du. “Esaten dugu demokratikoa dela, agintariak demokratikoa dela, jokatu ez zutelako, herriari parte hartze



Txostena Hitzarturen mahai teknikoak kudeatuko du, “Residua Ingenieria y Consultoria” enpresaren laguntzaz.

GURASOS

“Donostian eta Debagaraiako herritarrekin bi parte hartze saio egingo dituzte urrian”

prozesua ukatu ziotelako. Beraz, herriari prozesu partehartzaile bat posible egingo dion lan demokratiko bat izango da”. Aukera guztiak barne hartuko dituena, baita Zubieta gainean eraikitzen ari diren azpiegiturak beharrezkoak diren edo ez.

Herri-epaileak

Hondakinen kudeaketaren plan berriaren xehetasunak aurreratzeaz gain, urrian, Donostian eta Debagaraiako herritarrekin egingo diren bi parte

hartze saio iragarri dituzte. Hondakinen kudeaketa plana erredaktatzeko laguntza tekniko kontratatu duen moduan, “herri-epaile” izenez deitu dituzten bi parte hartze saio hauen planaren diseinua eta kontratazioa bideratu dituela berri eman du GuraSOsek.

30 herritarrek parte hartuko dute, “herri-epaile” izeneko saio bakoitzean. Epaile lanak egingo dituzten herritarrok ausaz aukeratuko dituzte, “neutraltasuna eta aniztasuna bermatuko duen irizpide demoskopikoekin”. Epaile bakoitzak 100 euro jasoko ditu. Lau orduko jardunaldian parte hartuko dute eta gaietan adituak diren aurkezpenen berri jasoko dute. GuraSOsek formalki gonbidatu ditu Foru Aldundia eta Mankomunitatea jarduera hauetara, haien ikus-

pegiaren berri emango duten adituak bidal dituzten.

Laguntzarako deia

Ekimen guztiok duten kostuari aurre egin eta Hitzartu prozesua aurreikusi bezala bideratu ahal izateko laguntza behar du GuraSOsek. Bakoitzak ahal duenetik laguntzera deitu dute. Dagoeneko Hitzartu prozesurako 20.300 euro baino gehiago bildu dituzte. Baina laguntza gehiagoren beharrean dira. Diru ekarpenok kontu zenbakion bidez egin daitezke:

Laboral Kutxa:

ES05 3035 0140 33 1400031124

Kutxabank:

ES83 2095 5060 10 9117692165

Foru Aldundiari bilera eskaera

GuraSOS sortu zenetik behin eta berriz aldarrikatu izan dute, hondakinen kudeaketarekin dugun gatazka elkarrizketaren eta adostasunaren bidez konpondu beharra dagoela. Ahal dutenero Gipuzkoako Foru Aldundiari elkarrizketarako gonbita luzatzen diote. Hala egin dute berriz. Gai honen inguruan elkarlanerako akordio bat adostu ahal izateko, eta erakunde zein herritarren artean eman den urrutzea gainditzeko biltzea eskatu diote. Gaurkoz ez dute Diputazioaren erantzunik jaso.

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak • beira bikoitza
- segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4 20170
Tlf 943 37 08 78 RPS: 28/17 USURBIL

Hobeki, hondakinaren kudeaketa ontzera datorren Euskal Herriko toki erakundeen bilgune berria

Hondakinaren kudeaketa-
ren eremuan, osasuna,
ingurumena, ekonomia
zirkularra... lehenesten ari diren
toki-erakundeen arteko komu-
nikazioa hobetu eta esperien-
tzia, iritzi trukaketa sustatzeko,
elkarlanerako eta koordinazio-
rako Euskal Herri mailako bilg-
gunea aurkeztu dute; Hobeki
Elkartea. Elkartea Hernani,
Larrabetzu, Leintz-Gatzaga
eta Donemiliagako udalek sor-
tu dute, eta bilgune horretara
batu dira beste hainbat udale-
rri; Segura, Zaldibia, Berriatua,
Berastegi... eta Usurbil.

Gogoan izan, maiatza
amaieran udalbatzak egin
zuen osoko bilkuran, Usurbil-
go EHBilduk, Euskal Herriko
toki-erakundeen elkarte hau
babestea proposatzen zuen
mozioa aurkeztu zuen. Ge-
hiengo osoz onartu eta Hobeki
Elkartearen 10 printzipioekin
bat egin zuten.

Laburbilduz, osasunaren eta
ingurumena zaintzea lehene-
tsiko du Hobeki Elkartek hon-
dakinaren kudeaketaren arloan.
Hondakinak egoki kudeatzeko
herritar eta erakundeen arteko
elkarlana ezinbestekotzat jotzen



“Hondakinak egoki kudeatzeko herritar eta erakundeen arteko elkarlana ezinbestekotzat jotzen dute”.

dute; herritarrek ahalduntzea
ere bai; hondakinak murriz-
ten ahalegindu, eta murriztu
ezin dena, berrerabili eta bir-
ziklatzea; balorizazio mate-
rialak hobesten dute “baloriza-
zio energetikoaren kaltetan”,
honenbestez erraustegi eta
zabortegei konbentzionalik ez
dute nahi; azpiegitura lokalak
lehenesten dituzte; eta aurre-
rakuntza teknologikoei duten
garrantzia ematea.

Hobeki Elkartearekin bat
egiten duten udalak printzi-
pio guztiok onartu eta honda-
kinen politika hauen arabera
garatzera konprometitzen dira.
“Hobekirekin bat egiten dugun

toki-erakundeok erabateko
konpromisoa dugu hondaki-
nen kudeaketa ekologiko eta
arduratsuekin, nola teorian
hala praktikan”. Udalerraren
unean uneko egoera jakina-
raziko diote elkarteari. Udale-
rriko hondakinak kudeatzeko
plangintzak diseinatu eta abia-
tuko dituzte. Eta “tratamendu
finalistara doan zatia ahalik eta
txikiena izateko konpromisoa
hartzen da. Zabortegei konben-
tzionalen edo errauste-planten
ordez, bestelako tratamendu
jasangarriak hobetsiko dira”.

Web orria

Elkartearen jarduna plazara-

tzeko tresna nagusia izango
dena ere aurkeztu dute; Hobe-
ki Elkartearen web orrialdea.
Bilguneari buruzko informa-
zioarekin batera, elkarteko
kideen xehetasunak, udalen
esperientzia, programa eta egi-
tasmoak argitaratuko dituzte.

Web orri bizia izatea nahi
dute, “egitasmoak parteka-
tzeko, elkarren berri izateko,
elkar ezagutzeko tresna izan-
go da”. Urratsa eman nahi
duen Udalak, Hobekide egite-
ko aukera izango du atari hon-
en bidez.

Informazio gehiago, hobe-
kielkartea.eus atarian jasoko
duzue.

Zero Zona, GuraSOSen kanal berria

Aurrerantzean herriari hitza
eman nahi dion Zero Zona
ikus-entzunezko kanal propioa
estreinatu zuen GuraSOSek
Youtuben ekainaren 15ean.
“Batzuk nahi dutena soilik
kontaktatu dute. Zero Zonan
herriak du hitza”. Adierazpe-
nokin abiatu zuten emisioa.
Aurrerantzean, ostegunero
19:30etan albistegi, elkarrizke-
ta edota dokumentalen bat es-
kainiko dute bertan. Lehen bi
saioetan, Hitzartu prozesua,

Europar aurkeztu dituzten eki-
men juridikoak, edota maiatza
hasieran Landaberri Ikastolan
herritarrekin eginiko jardunaldi
eguna hartu dute ahotan. Gu-
raSOSek berri eman duenez,
“gune irekien metodologiarekin
egindako parte-hartze jardun-
di hartan atera zen” kanal hau
zabaltzeko ideia. Baita, albiste
honetan aipatu dugun honda-
kinen kudeaketarako planaren
nondik norakoen gaineko infor-
mazioa ere.

Hurrengo asteetan, Eduardo
Rodriguez Farre zientzialaria-
ri eginiko elkarrizketa, edo-
ta erraustegiaren kontratuari
buruzko sekretuak plazaratuko
dituzte. Erronka bat betetzen
laguntzera animatzen gaituzte.
“Baietz 50.000!”. Zero Zona
Kanaleko 50.000 harpidedun
eta ikuskapen izatera heldu
nahi dute. Bideo hauek ahal
bezain beste zabaltzeko eta
partekatzeko gonbita luzatu
dute.

GuraSOSen salaketa ikertuko du Europak

Erraustegiaren eta haren fi-
nantza ereduaren kolapsoa
ekar dezaketen hainbat eki-
men juridiko aurkeztu ditu
asteotan GuraSOSek Euro-
pan. “Bruselan erregistroa
eman diote gure salaketari”,
guraso taldeak NOAUA!ri be-
rri eman diotenez. “Zure sa-
laketa batzordeko zerbitzuek
aztertuko dute”, erantzun
diote, Europako Batzordeko
Ingurumen Saitetik.

Telefono mugikor zaharren bilketa

Anek 14 urte ditu, gure lehengusu baten alaba da. Pairatzen duen gaixotasun arraroaren azterketarekin jarrai dezaten mugikorren bilketa egiten ari dira AEPMI asoziazioaren bidez. Azterketa horrekin, egun gaitza dutenen bizi kalitatea hobetzea lortu nahi da, eta ahal dugun neurrian, gaitza nola geldiarazi edo egonkortzen lagun dezaketen farmakoak sortu.



Bilketa hasi dute, patologia mitokondrialia aztertzen jarrai dezaten.

Berak duen gaixotasuna Patologia Mitokondrialia da. Gaixotasun honek zera eragiten du: gure organismoko parte diren zelulen mitokondrien disfunzioa. Zelula hauen zeregina gure gorputza, organuak, burmuina... behar bezala garatu eta funtziona araztea da, eta horretarako behar duten energia sortzea.

Patologia Mitokondrial hau batik bat haurretan garatzen

IKASLE TALDE BAT
“Eskuko telefonoak biltzen ari gara, Patologia Mitokondrialia aztertzen jarraitu dezaten”

da, eta mitokondrien disfunzio horrek, zelulek nahikoa energia ez sortzea eragiten du.

Gaitza duen pertsonaren organuek, funtzionatzeari uzten die pixkanaka. Heine handi batean burmuin, bihotz, gibela, muskulu, giltzurrun eta arnasketak aparatuetako zeluletan eragiten du, gaitza duen pertsona heriotzera eraman arte.

Anek momentu honetan 24 orduz behar du pertsona bat bere ondoan. Burmuin nahiz sistema muskularra nahikoa

kaltetuak ditu jada, baina, ahal den neurrian, esku bat botatzetik baldin badugu, mugikorren bilketarekin gaitza aztertzen jarrai dezaten, primerakoa litzateke.

Eskuko telefonoak Usurbilgo Mapfre bulegoan utzi ditzakezue.

Udarregi Ikastolako ikasle talde bat.

Jolasean, klub denboraldi amaiera egun bateratuan



Ekainaren 23an ospakizun eguna izan zuten Usurbil F.T., Usurbil K.E. eta Pagazpe Pilota Elkartek.

Despedida egunak izan ditugu honako hauek. Amaitu da ikasturtea ikastetxeetan, eta denboraldia ere amaitu dute kirol taldeek.

Ekainaren 23an ospakizun eguna izan zuten Usurbil F.T., Usurbil K.E. eta Pagazpe Pilota Elkartek. Estreinakoz, hiru eragileok modu bateratuan antolatu dute kirol urte amaierako

ospakizun eguna.

Kirolari gaztetxoei zuzenduriko jolasekin abiatu zuten eguna. Mikel Laboa plaza, frontoia, Oiardo Kiroldegia edota Artzabal ingurua lotu zuen

zirkuitu modukoa prestatu zieten, denetariko jolasekin. Primeran pasatzeaz gain, bazkari baten bueltan borobildu zuten goiz partea. Eguna berriz, klub bakoitzak eginiko afariekin.

Debutean irabazi egin zuen Aitor Arangurenek



Debutean, zaleen berotasuna gertutik sentitu zuen Aitor Arangurenek. Argazkia: Oxkar Santamaria.

Aitor Aranguren aginagarraren debuterako ikusmina bazen. Eta eguna helduta, herri kideek ez zuten huts egin Asegarce enpresarekin ekainaren 23an Tolosako Beotibar pilotalekuan izan zuen estreinako neurketan. Aginagako ordezkari zabalaren aurka izandako partidaren 22-20 irabazi zuten. Zorionak!

Hasiera ezinhobea izan du. Olaizola II.ekin osatu zuen bikotea eta Artola eta Ibai Zabalen aurka izandako partidaren 22-20 irabazi zuten. Zorionak!

“Emozioz beteriko eguna”

Aginagako bere lagunek eta senideek eskertza ohar bat igorri dute NOAUA!ra: “Larunbatean, ekainak 23, izan genuen Aitor Aranguren debuta Tolosako Beotibar pilotalekuan. Aitor hirugarren aginagarra da, Joxe Mari Galarraga eta Jabier Bereziartuaren ondoren, pilotari profesional izatera iritsi dena.

Larunbatekoa emozioz beteriko eguna izan zen Aitorrentzat eta bertara ikustera joan ginen guztientzat ere. Aitorrek Aimar Olaizolarekin osatu zuen bikotea, Artola eta Ibai Zabalen aurka lehiazeko. Partida

polit eta lehiakorra ikusteko aukera izan genuen, eta denok pozarren hartu genuen Aitor eta Aimarren 22-20ko garaipena.

Jende asko hurbildu zen larunbat arratsaldean Tolosako Beotibarrera eta Aitorrek animo asko izan zituen, bere ibilbide berriaren hasiera ahalik eta egokien has zezan. Halaxe izan ere, Aitorrek ederki hasi du profesioaletako ibilbide hau, eta seguru horrela edo hobeto jarraituko duela. Zorionak Aitor eta mila esker bertara hurbildu zineten guztiei, eta baita etxetik ere animatzen aritu zineten guztioi ere!”

Uztailean Errioxara asteburu pasa Andatzakoekin

Andatza M.K.T.-k antolatutako asteburu pasarako izen emateko epea zabalik egongo da uztailearen 3ra arte.

- Irteera egunak: uztaileak 7, 8.
- Abiatzeko hitzordua: autobusez, uztailearen 7an 7:00etan Oiardo Kiroldegitik.
- Ibilbideak: Valgañón-Posadas (19 km), Cubilla-Pancorbo (13 km).

■ Izen ematea: uztailearen 3a baino lehen 75 euroko ordainketa egin kontu zenbakio-tako batean:

Rural Kutxa:
3008 0259 1630 0543 0321

Kutxabank:
2095 5069 0710 6848 9805

- Oharrak:
 - Ostatua pentsio erdian, “Albergue Ezcaray” gunean.
 - Plaza kopuru mugatua.
 - 2 eguneko ibilbideen otorduak

norberak eraman behar ditu. -Andatza M.K.T.-k antolatutako irteeretan parte hartzeko derri-gorrezkoa da, mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean edukitzea. “Federatu gabe dagoenari tramitea egingo diogu, hala nahi badu”.

■ Antolatzailea: Andatza M.K.T.

Informazio gehiago:
andatza@hotmail.com
andatza.com

Egunotan “Nordic Walking”

ikastaroa

- Ekainak 28: 16:00-19:00.
- Ekainak 29: 17:00-19:00.
- Prezioak: bazkideek, 20,50 euro. Bazkide ez direnek, 41 euro.
- Makilen alokairua: 5 euro.
- Informazioa: Oiardo Kiroldegian.

Jaietarako kirol agenda, bete-betea

Kirol hitzordu ugari iragarri dira abiatzeko diren Usturbi-ko jaietarako. Astearte honetan (ekainak 26) jokatzekoak ziren pala txapelketen finalak eta kirol egokituaren erakustaldia.

Pilota

Santxabel Egunez ospatuko dira gizonezkoen eskupilota txapelketako finalak, 17:30ean frontoian.

Urpekaritza eta BTT irteera

Gainerako kirol ekintza guztiak astebururako iragarri dira. Larunbatean (ekainak 30) urpekaritza saioa 11:30etan Oiardo Kiroldegian. Ordu erdi lehenago abiatuko da haurrentzako BTT bizikleta irteera Mikel Laboa plazatik. Ez ahaztu bizikletaz gain, kaskoa eramateaz!

Harri jasotzaileak, idi-dema, aizkolariak, emakumezkoen giza-proba...

Biharamunean, igandean herri kirolen eguna ospatuko da. Eguerdian, 12:30etan hasita, Euskal Herriko emakume harri-jasotzaile eta aizkolarien txapelketa ospatuko da. Arratsalde berri, emakumezkoen giza-proba eta idi-dema.

Xehetasun denak, jaietako egitarauan.

ETXEBIZITZA

Salgai

Erreka Txiki 13. Duplexa salgai Usurbilen. 132 metro², 80 solairu nagusian; 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Garaje itxia etxerako zuzeneko sarbidearekin eta trasteroa. 320.000 euro. 646 305 465.

126m²ko pisua salgai Aginagan, 65m²ko ganbararekin. Oso eguzkitsua, dena kanpoaldera. Berritu beharra. Prezioa 186.000. 659257889 edo 680742504.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro² lokala salgai Munalurran. Etxea bihurtzeko baldintzak betetzen ditu. Prezioa: 68.000 euro. 943 916 182 (Jon).

90 m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m²- terraza, 8 m² trastelekua eta bertan 33 m²-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komun, kalefakzioa. Dena berritua. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 359.000 euro. 679002101.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berritua, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Alokairuan

Pisu bat alokatzen da Santuenean. Tel. 679 366 415

Abendurako pisua alokairuan hartu nahi dut, Aginagan, Usurbilen edo Orion. 690 367 952

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negoio-lokala bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra,

4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektriko eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatziki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro² lokal bat salgai. Alpe-rrorburu 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negozio-garriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m karra-tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Neska euskalduna, Usurbilen umeak zaintzen egingo nuke lan udara honetan: ekaina, uztaila edota abuztuan (goiz, arratsalde

edo orduka). 617263123.

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Etxean, ospitalean, gauetan, externa bezala, orduka edo asteburutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo externa bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko esperientzia. Arduratsua, erreferentzia onekin. 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko. Ospitalean, etxean, gauetan. Garbiketa orokorrean ere bai. 671 763 558

Pertsona helduak zainduko nituzke, asteburu, jai egunetan eta gauean, baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404 015.

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztaila, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziarik. 662 910 181

Interna bezala lan egingo nuke. Esperientziarekin. Paperak eguneratuta. Tel 682 723 520



Zorionak Amaiur, 3 urte dagoeneko, oso zoriontsu egiten gaituzu. Asko maite zaitugu!! Izar, aita-txo eta amatxoren partetik!!



Zorionak Ekain, Muxu handi bat etxekoan partez. Ondo pasa zure eguna!!!!



Ekainaren 27an, 7 urte! Zorionak bikote, muxu erraldoi bana etxekoan partez!



Zorionak! Aragoiko Puente de Sabiñanigon ospaturiko 85 kilometroko Treparriscos proban parte hartu zuten ekainaren 23an: Maider Orbegozok, Olatz Zuloagak, Miren Ezeizak, Gema Molinak, Idoia Amasek eta Esther Pelaezek. "Zorionak trikitalari taldea!"

Heriotzak

Carmen Martín Pérez

74 urterekin hil zen ekainaren 21ean Usurbilen



OHARRA: 2018ko uztailaren 6an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: uztailaren 2a astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatriko eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsalde. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsalde. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauetan, asteburutan, externa bezala edo garbiketa lanetan. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziak. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herritar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketarako egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabilta. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketa lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oporretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrik emateko prest egongo litzateke: euskeran, gaztelan, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketarako. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelohetik ostiralera. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako lan egiteko. Interna moduan, orduka edo gauetz. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketarako, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Geriatría laguntzaile bezala, edo

sukaldari bezala (euskal sukaldearen ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenaretzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketarako, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

BESTELAKOAK

Erlorju bat galdu dut Santuenean. GPSa eta pulsometroa. Souto Gramin markakoa, beltza. Aurkitu baduzu deitu: 662 039 829.

Gerezi koloreko logela bat salgai. Egoera onean. Ohea, idazmahai, armairua eta apal bat. 400 euro. 600 320 967

Udarregi Ikastolan klase partikularrik emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

Errege sagar ekologikoa eta etxeko membrilloa salgai. Interesatz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enorkadorea salgai. 943363201

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udalzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Iturralde botika.....	943 363 395
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	DYA.....	943 464 622
Haur Eskola.....	943 374 061	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Emergentziak.....	112
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
KZGunea.....	943 023 684	Kutxabank.....	943 361 202
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Popular Español.....	943 370 411
Etumeta AEK eskaltegia.....	607 609 379	BBVA.....	943 377 155
Kalezar Eguneke Zentroa.....	943 365 249	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Telefonica.....	1004
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Euskaltel.....	900 840 840
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321		

Goardiako farmaziak

Osteguna 28 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 29 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 30 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 01 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Astelehena 02 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteartea 03 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteazkena 04 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ekainak 28 - Uztailak 08

Osteguna 05 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 06 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 07 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 08 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda ekaina

29 ostirala

- **Usurbilgo jaiak.** Ikus jaietako gehigarria.
- **Erakusketak Sutegin: Iñaki Agirresaroberen argazkiak, Zirriborro tailerrekoen lanak eta Eguneko Zentrokoen eskulanak.**

30 larunbata

- **Usurbilgo jaiak.** Ikus jaietako gehigarria.
- **Erakusketak Sutegin: Iñaki Agirresaroberen argazkiak, Zirriborro tailerrekoen lanak eta Eguneko Zentrokoen eskulanak.**

01 igandea

- **Usurbilgo jaiak.** Ikus jaietako gehigarria.
- **Erakusketak Sutegin: Iñaki Agirresaroberen argazkiak, Zirriborro tailerrekoen lanak eta Eguneko Zentrokoen eskulanak.**

Laboaren Uztaila ate joka

Mikel Laboaren omenez, bere izena daraman plazako “borobila” bakarlariekin kontzertuen gune bilakatuko da hurrengo asteotan. Ostegunero euskarazko musika gauak izango ditugu 22:00etan hasita. Lehen bisitaria, uztailaren 5ean datorkigu; Igor Arzuaga (Mara bakarlarria).

Diska zozketa

Laboaren Uztaila ekimen autogestionatua da. “Inolako diru-laguntzarik gabe egiten denez, betiko lez txapela pasako da kontzertuetan ikusleek borondatea jar dezaten”. Gastuei aurre egiteko trukean ordea zer irabazia izango den ekimena ere antolatu dute. “Musikariekin laguntza eskaini dute beraien diskak oparitzu eta diska hauen sorta ederrak zozketatuko dira uztailaren 5 eta 26ko kontzertuetan. Zozketarako boletoak jada salgai daude, nahi dituenak herriko festa edo ekintzatan aurkituko gaitu saltzen”. Gaineratu dutenez, “zozketarako talde eta bakarlari mordo baten diskak ditugu dagoeneko



Uztailaren 5ean txarra egingo balu, Sutegin egingo litzateke Mararen kontzertua.

eta zerrenda luzatuz doa: eMe, Don Inorez, Zozo, Joseba Tapia, Joseba Irazoki, Mikel Uraken, Zaparra, Kezka, Erokomeiri, Odolaren Mintzoa, Rukula, Sokartean, Hotzikara, Mendeku Itxua, Desegin, Izeberg... Boletorik ba al daukank?”

Laboaren Uztaila

- Uztailak 5, Igor Arzuaga (Mara).
- Uztailak 12, Joseba Irazoki.
- Uztailak 19, Mikel Uraken.
- Uztailak 26, Sokartean.
- Mikel Laboa plazan, 22:00etan.

Elkarretaratzea

Euskal presoen eskubideen aldeko azken ostiraleko mobilizazioarik ez da izango ekainaren 29an. Horren ordez, ekitaldia egingo da ekainaren 30ean 20:00etan Potxoenea ondoko Olanoeneko plazan.

Odol ematea

Jaien ondorengorako egin dute deialdia. Hurrengo odol ematea uztailaren 9an astelehena izango da, arratsaldeko 18:00etatik 20:30era, ohiko tokian: Usurbilgo anbulategian.

Datozenak

Uztailaren 12an eta 13an, Jakin Jardunaldiak Usurbilen

‘Utopia 68/18. Iruditeria berrien bila’ udako ikastaroa Usurbilen egingo da, uztailaren 12 eta 13an, “gogoeta kolektiboaren bitartez, nora goazen edo nora joan nahiko genukeen begintzeko”.

UEUren, Usurbilgo Udalaren eta Jakinen elkarlanaren emaitza da udako ikastaroa. “Iaz Jakin eta Usurbilgo Udalarekin abiatu genuen bideak fruitu ederrak eman ditu”, azaldu zuen Iñaki Alegria UEUko zuzendariak. Eta bide horretan jarrai-tzeko borondatea berretsi zuen Xabier Arregi Usurbilgo alkateak: “Usurbil hitzaren, gogoetaren eta solasaldi pausatuen parada izatea nahi dugu”.

Utopia berriak aztergai

Lorea Agirre Jakineko zuzendariaren esanetan, “gaur egun eta hemen utopia zeri deitzen diogun aztertzeko, gizartea eraldatzeko borroka eremuak non dauden zehazteko, eta zer iruditeria kolektibo eraiki eta partekatzen ari garen hausnartzeko, nola berri dezaiegun pentsatzeko balioko du Jakin Jardunaldiak”.

Izen-ematea

www.ueu.eus / 943 82 14 26
i.iciar@ueu.eus

ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
629 272 859 eta 943 36 13 80
BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ETXETRESNEN KONPONKETAK eta SALMENTA
MARKA GUZTIAK azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA
645417665
XABIER Usurbil

berria *laguna*

Erosi Usurbilen berria ren eskutik

sariak

500
euroko TXEKEA

500
euroko TXEKEA

300
euroko TXEKEA

Zozketa

uztailaren 16an egingo da

Laguntzaileak:



Uztarriko Udala

hurbilag 

Babeslea:

FAGOR 
FAGOR AUTOMATION



berria
#BERRIAk15

Udarregi

IKASTOLA



On do paga santixabekak!!!

santixabe

943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea, USURBIL

www.udarregi.eus